

## Kattalin Agirre



**Udalerria:** Sara (Lapurdi)

**Jaiotze-data:** 1987-08-28

**Heriotza data:** 1992-07-22

**Lanbidea:** Mugalaria eta Frantziako erresistentziako kidea

Bigarren Mundu Gerran zehar, Ameriketako Estatu Batuetako zerbitzu sekretuek antolatutako Margot eta Nana erresistentzia sareen parte izan zen Kattalin Agirre, Comete sarearen zutabe bilakatuz

Kattalin Agirre lapurtarra 1897ko abuztuaren 28an Saran jaio eta 1992ko uztailaren 22an hil zen Ziburun. Lamothe zen bere berezko abizena, baina Pierre de Agirrerekin ezkondu ostean Kattalin Agirre gisa egin zen ezagun.

Bigarren Mundu Gerran zehar, Ameriketako Estatu Batuetako zerbitzu sekretuek antolatutako Margot eta Nana erresistentzia sareen parte izan zen Kattalin Agirre, Comete sarearen zutabe bilakatuz. Kattalinekin eta bere alaba Josephinekin, Fifine, Ziburuko etxean hartzen zituzten Bidasoa zeharkatu bezperan aterpea behar zuten hegazkinlari aliatuak. Beraien lagun min Florentino Goikoetxea izan zuten ama-alabek ezinbesteko bidaide abentura arriskutsu horretan. Behin guda amaituta, domina eta omenaldi ugari jaso zituen Kattalin Agirrek gobernu aliatuaren eskutik. Tartean, 1985eko uztailaren 14an jasotako Frantziako Ohorezko Legioa.

Hegazkinlariak erori ziren tokian jaso, ezkutatu, zaindu, osatu, Alemaniak okupatutako Estatu frantsesa goitik behera ezkutuan zeharkatu, Euskal Herrira iritsi, Bidasoa ibaia gauzez igaro eta Gibraltarren barrena pilotuak Britainia Handira heltzea ahalbidetu. Horixe izan zen Comete sareak 1941etik 1944ra behin eta berriro egin zuen lana.

Iturria: [kazeta.info](http://kazeta.info)

KATTALIN  
AGIRRE



---

KALEA